



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 200 eta 250 hitz artean egongo da.
- Testuak bi atal izan beharko ditu, paragrafotan banatuta. Atal bakoitza, bisita birtualean txertatuko ditugun bi leku hauetan dauden arrokei buruzkoa izango da:
 - **Kareharriak**, mendi garaienak osatzen dituztenak. Gaztelu haitzaren behatokitik ongi ikus ditzakegu. Balzarrako arkua bezalako egitura bitxiak eratzen dituzte disolbatzerakoan, baita Markinezen ere ([Euskadiko interes geologikoko 110. lekua](#)).
 - **Hareharriak**, haranak eratzen dituztenak, buztinekin batera. Atxartea izeneko gunean txertatu dezakezue haiei buruzko azalpena.
- Arroka bakoitzari buruz hau azaldu beharko duzue:
 - Zer motatako arroka da (sedimentarioa, magmatikoa edo metamorfikoa)?
 - Nola eratu zen arroka hori?
 - Zer aro geologikotan sortu zen?
 - Zein dira arroka mota horren erabilera posibleak (laburtuta)?
- Arroka mota horren argazki bat txertatu, gero ibilbide birtualean erabiltzeko.
- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, hala ere, ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, hau gehitu behar duzue dokumentuan:
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean, eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testua eta audioak grabatu.